

Bero-beroan

Elebidunak gehiago, hitz egiten dutenak ez

EUSKO JAURLARITZAK egin duen IV. Mapa Soziolinguistikoak 2006ko biztanleria datuak hartu ditu kontuan. 1981ean (I. Mapa orduko datuekin egin zen) baino 325.000 elebidun gehiago ziren 2006an. Beraz, 25 urtean elebidunen kopurua %15 hazi da. Beste era batera esanda, 2006an EAEn 755.640 biztanlek zekiten euskarak. Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa gehituz gero elebidunak 873.000 dira. Gazteak dira batik bat euskara ikasi dutenen multzora gehitu direnak. 1981ean 15 urtez azpiko %20ak zekien euskara eta 2006an %75ak.

Euskararen ezagutzaz honaino. Eta erabilera? Esparru publikoan ari da toki irabazten, baina etxean euskara

erabiltzen dutenen kopurua ez da hazi azken 15 urteotan. Baztarrিকা HPSko sailburuordeak ondokoa esan zuen irratian IV. Maparen harira: gero eta gehiago ikasten du euskara, gero eta gehiago darabilgu esparru publikoan, baina etxeko sofan gaztelaniaz ari gara. EAEko herritarren %78,5ak gaztelania darabil nagusiki etxean eta %13ak euskara.

Hiztegi eroa Twitterren

MARKOS GIMENOK jarri du abian. Honelako hitz jokoak ageri dira: “Herdoia”: Oxidoaren neurri justua; “Estekatu”: Euskañolez, katu hau; “Gerrikoa”: Garzonek ogaindik itxi ez duen tabegna. Parte hartu nahi izanez gero: <http://search.twitter.com/search?q=%23hitzokei>

BAHEA

Iñaki Petxarromanek *Berrian* esanak: “Ez inposatzeko politikaren ardatzak” argitzen hasi dira PSE-EE eta PP: Arabako Euskara Plana aldatuko dute kontratu publikoetan hizkuntz eskakizunik ez egiteko. ‘Euskara inposatzen bada, gaztelania baztertu egiten da’ esan du PPko biltzarkide Javier Morazak. Non eta Araban! Eta, Espainiako Hezkuntza ministro Angel Gabilondok bat egin du tesiarekin”.

Luis María Martínez Gáratek *Diario de Noticiasen* esanak: Martínezek Terry Davis Europako Kontseiluko idazkari nagusiak *Noticias de Gipuzkoan* esandako hitzak hartu ditu hizpide. Hala esan zuen Davisek: “Bateren batek jendeari hizkuntza inposatu behar badio, erakargarri egin beharko luke, jende horrek hizkuntza ikasteko gogoia izan dezan. Ikastera derrigortzen baduzu zure ahulezia ari zara erakusten”. Martínezen hausnarra: “Agian Davis hizkuntza *ez garrantzitsuez* baino ez da ari eta segurutzat jo du *garrantzitsuez* ez dutela euren inposizioa justifikatu beharrik. Nebrijak esango lukeen moduan, naturala eta *imperioaren lagun* delako. Lehenengoek, *erlikia etnologikoak*—edo, hitzun hipotetikoak *seduzitu* (Josu Jon dixit) beharko lituzkete”.

Josep María Artigal, atzerriko hizkuntzen irakasketan aditua *Berrian* esanak: “Hizkuntzak ez dira lehenbizi ikasten geroago erabiltzeko, erabiliz ikasten dira. Helburua katalanez hitz egitea bazen lehenbiziko momentutik hitz egitea ahalbidetzen zuten leku, une eta moduak asmatu behar nituen. 1982. urtean hau ez zen erraz planteatu ahal genuen hipotesia”.

Honelako albistek egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Laneko segurtasun eta osasuna

Apirilaren 28an, mundu osoan ospatu da Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna. Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera 5.500 langile hiltzen dira egunean lan istripuengatik eta beste milioi batek lan istripuren bat jasaten du. Hau da, hamabost segundoko langile bat hiltzen da eta beste 160k istripua izaten dute edo gaixo jartzen dira. Egun honek balio izan du gogoratzeko lan istripuen gaitza lantokietan. Modu berean, balio izan du salatzeke Patronalaren eta administrazio publikoen ardura, judiziala barne, profesional eta langile horien heriotza eta gaixotasunetan. Sindikatuek eta langileek berek ere onartu beharko lukete beren erantzukizuna, ez dituztelako betetzen edo betearazten laneko segurtasun arauak.

Euskal Herrian 112 langilek galdu zuten bizia 2008an eta aurten, jadanik, 21 hil dira. Nazioarteko Eguna hau, aldiz, amianto hiltzailearen arazoak bete zuen, azken urteetan euskal langileen bizitza ugari eraman baititu. Horrela, CAFen langileek bi orduz gelditu zuten beren lana, ofizialki amiantoak hil dituen 45 langileen alde bildu ziren eta eskultura bat jaso zuten haien oroimenez. Amiantoaren eragina jasan dutenak askoz gehiago izan daitezke, langileak pixkanaka hiltzen dituen materiala baita. Sindikatuen tinkotasunari eta familiei esker, kutsatutakoak agerian jartzen ari dira enpresetan. Langile eta sindikatu guztien xedea izan behar luke behin-behinekotasunaren, prekaritatearen eta gaitz profesionalen kontra, bai eta osasunaren eta lan segurtasunaren alde borrokatzea. Laneko segurtasun eta osasuna ziurtatzea Patronalaren eta administrazio publikoen—judiziala barne— betebeharra izan behar luke.

Juan Mari Arregi

Bultza daiteke ondo greba zatiketarik?

HEGO EUSKAL HERRIAN langabezia %10,4ra iritsi da jada, eta larriena da zenbakiek gorantz jarraitzen dutela, izugarri azkar gainera -urtebetean bikoiztu egin da-. Espainiako datuak are okerragoak dira: populazio aktiboaren %17,3an dago langabezia; eta joan den astean Espainian langabetu kopuruak 4 milioi pertsona gainditu izanak alarma gorria piztu zuen komunikabideetan. Europan ere goraka doa langabetu kopurua, eta krisiaren datu ekonomiko orokorrak Euskal Herrian baino okerragoak izan badaitezke ere, lanik gabekoen zenbakiak apalagoak dira: Alemanian %8,5, Frantzia %7,8 eta Erresuma Batuan %6,7.

Maiatzaren 21eko greba deialdiak lanpostuen defentsa hartu du ardatz, eta Maiatzaren Lehenean ere aldarrikapen bera jorratuko da, greba orokorrerako txanpa eginez. Grebaren aurkako zein kontrakoak ari dira jada kanpainen eta kontrakoen artean pausatutako argudio nagusia da ezer ez duela konponduko eta 22an berdin egongo garela.

Greba deialdia egin duen gehien-go sindikalaren erronka ez da txantxetako, krisiak haizea alde jartzen du, baina ikuspegi ekonomikotik

eroso eta oparotasunean bizitzera ohitu den gizartea mugiaraztea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Oztopoen zerrendan, euskal gizartean erosotasunari sindikalgintzaren banaketa gehitu behar zaio. Ausart jokatu du gehien-go sindikal abertzaleak, baina populazioaren zati batek seguruenik abertzaleen greba gisa ere sumatuko du greba hau, eta horri instituzio eta hedabide nagusietatik egingo zaion kontrakanpainaren gehituz, grebaren aldekoek fin eta azkar jokatu beharko dute arrakastatsua izan dadin.

Ekimena, bestalde, ez da zerbait isolatua, mundu osoan gertatzen ari dira mobilizazio ugari eta egunotan Europan ere bai. Frantzia jadanik bi greba orokor egin dira aurtan, Maiatzaren Lehenean manifestazio bateratuak egingo dira lurralde osoan eta ondorengorako ezkerreko alderdi batzuk greba orokorra ari dira proposatzen. Maiatzaren, 14, 15 eta 16an, halaber, Europa osoan egingo dira manifestazioak krisiaren ondorioen aurkako protestei ikuspegi bateratua emateko.

21-EKO GREBA deialdira itzuliz, badira kezkarriak diren aurreka-

riak, maiatzaren 1ean Euskal Herriko kaleetan ikusiko den moduan. Gehien-go sindikalak greba orokorrerako txanpa gisa aurkeztu du aurtengo langileen eguna, eta horrek logika osoa du. Logikarik ez duena, ordea, lan eta prestaketa hori banaketa girotik egitea da eta sindikatu bakoitzak bere ekitaldiak antolatzea bateratasun giroari muzin eginez.

ELA eta LAB dira gehien-go sindikal horren motorra. 90eko hamarkadaren bigarren erdian erakutsitako ekintza bateratasunaren ondoren, mende berriko ia lehen hamarkada osoan, zatiketa eta inkomunikazioa izan dira haien harremanen ezaugarri nagusiak. Tradizio, historia eta izaera desberdinetik datozen sindikatuak dira, bakoitzak baditu urruntzaren bere azalpen eta arrazoiak, jakina, eta bakoitzak bere etorkizuna jorratzen jarraitu behar du gainera. Eta lehiarik ere ez da falta. Bi sindikatuen jarduera bateratuak, halaber, eremu sindikala bera nabarmen gainditzeko da eta funtsezkoa da edozelako mugimendu soberanista berrirantz. Horregatik du kutsu etsigarria, beste behin ere, aurtengo Maiatzaren 1eko banaketa irudiak.



gure artean euskaraz

(1909-1996)

Euskaltzale bizkaitarrak

100. urteurrenean

*Canñol, euskal lurraldea
gerriz estutzen dokona;
biar, otol, ene odol
aize-bizfada bizkor;
gure erraren loa
emarazi nai neurek,
zar ta gaste-ume, guraso*

*enda-su kijakalgorran
-burdina matar gori bi-
alkar erantsi azirik,
Eta beñil, gerora,
ene arrazaren galifa
ara ta ona, aspertu bariñ,
ailoko asabak, be pietu nniez.*



BFA
DFB

Aita Santi Onaindia